LEZAMA BIZIRIK
aldizkaria
MARTXOAK 2023 /// www.lezamabizirik.eus

# LURZORUAREN BABESA, GURE ETORKIZUNA

Lurzorua funtsezko baliabidea da gizakion eta gainerako espezieen bizitzarako, zeren kontsumitzen ditugun elikagaien % 95 ekartzen baitigu. Hala eta guztiz ere, orain dela urte batzuetara arte ingurumen-babesak oso ahaztuta izan du beraren babesa. Denbora luzean, giza jarduerek lurzoruari egiten dioten mehatxua ahaztuta egon da, nahiz eta baliabide natural hori gero eta urriagoa den eta balio kalkulaezina duen, geosferaren eta biosferaren artean okupatzen duen posizio zentralagatik…

**Erronka da** lurzoru degradatuak lehengoratzea eta lurzoruaren balizko degradazioa eta **okupazioa zerorantz hurbiltzea, termino garbitan.** Lurzoru osasuntsuak izatea funtsezkoa da klima-neutraltasuna eta ekonomia zirkular eta garbia lortzeko, biodibertsitatearen galerari buelta emateko, elikagai osasuntsuak hornitzeko, giza osasuna zaintzeko eta lurzoruaren desertifikazioa eta degradazioa gelditzeko…"

Testu hori Arantxa Tapia sinatuta dator eta sarrera egiten dio 2022an argitaratutako "Euskadiko Lurzorua Babesteko 2030erako Estrategia" programari.

Okupazioa zerorantz hurbiltzeko proposatzen da lehendik dagoen industria-lurzoruari balio ematea, birgaitzea eta berrerabiltzea, beste modu batean esanda, dagoeneko antropizatu diren lurzoruak berrerabiltzea, eta lurzoru birjinen mesedetan, lurraldeko okupazio berrien aurka jotzea. Lurzoru natural eta erdinaturalen inbasioari aurre egiteko aurreko guztia proposatzen da.

Hori dena paperean idatzi eta proposatu ondoren, errealitate gordina dator. Lurralde Plan Partzial berrian (LPP-PTP) Zamudioko Agarren 50ha eta Lezaman beste 30ha baino gehiago okupatzea proposatzen da. Horietako 50.000m2, Lezamako udal gobernuak, bere alegazioetan, Uriarte inguruan birkalifikatzea eskatu zuen.

Agarrekoak dagoeneko Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiaren baimenak jaso ditu. Denetara 800.000m2 jarduera industrialerako birkalifikatzeaz ari gara. Ergelkeria bat, garbi esanda. Eskerrak lautada emankorren okupazioak saihestu edo debekatu egin behar direla… ez bada, aurrekoa konpentsatzeko, antzeko zabalera duten artifizializatutako lurzoruak berreskuratzen direla.

Beraz, 800.000m2 lurzoru emankorren okupazioa "berdintzeko", "zerorantz hurbiltzeko", non errekuperatuko dira beste horrenbeste metro koadro?. Non dago Lurralde Plan Partzialak aldarrikatzen duen oreka? Lezaman eta Zamudion behintzat ez.

Amaitzeko, "Euskadiko Lurzorua Babesteko 2030erako Estrategia" programan lurzoru naturalen funtzioak ondo azaldu egiten dira, ondo aztertzen dira mehatxu nagusiak… Gero, benetan, kontrako erabakiak bultzatzeko, justifikatzeko…?

# LURRALDE PLAN PARTZIALAREN INGURUKOAK...,

**Hasteko nabarmendu nahi dugu tramitazioaren prozesuan zehar, eta oraintxe bertan alegazioen erantzunetan, Lurralde Garapenerako Zuzendaritzak azpimarratu dituen bi ideia:**

**Lehena:**
"… adierazi behar da lurzoruaren artifizializazioa murriztea badela LPP-aren helburuetako bat, eta lehentasuna ematen diola azpiegitura berdeari." Diskurtsoa ondo dago, baina ez dugu proposamen bakar bat ere aurkitu norabide horretan. Artifizializazioa handitzeko, berriz, proposatzen diren guztiak, ikusiko duzuen bezala.

**Bigarrena:**
" Esan behar da LPP-aren ikuspegitik, modu orekatuan bateratu behar direla lurzoru urbanizaezinaren –nekazal lurrak- babesa eta jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskaintza nahikoa izatearen helburu estrategikoa…" Kasu horretan ere nekazal lurrak artifizializatzea ezin da orekatua izan planteatzen diren aukera guztiak nekazal lurrak okupatzea denean, desorekatua baizik.

"Eremu funtzionalean baliabide mugatua da, hortaz, halako lurzoru motaren beharra ikuspegi metropolitarretik aurrez ikusi behar da, Lezamako udal-irizpidetik haratago". Lurzoru industrialaren beharra baieztatu baino lehen zehaztu beharko lukete zenbat lurzoru industrial dago jadanik kalifikatuta, , eta bete barik eremu metropolitarrean, zenbat eraldatuta eta antropizatuta erabilgarri. Logikoa, planifikazio bat egin behar denean, ez da hala?.

"Gainera, BFA-aren Lurralde Historikoko jarduera ekonomikoetarako lurzoruen inbentarioa egiten ari da, eta webgunean argitaratuko da, amaitu eta berrikusitakoan". Beraz, planifikatzen ari dira datu zehatzik gabe??? Benetan sinestezina.

***Sarrera horren ondoren goazen alegazio batzuk komentatzera.***

## ALEGAZIOA.ERANTZUNA.KOMENTARIOA

**1- ALEGAZIOA.** Zamudion Agarreko jarduera ekonomikorako erreserba -50ha- kentzea eta Balio Estrategiko Handiko Nekazal Lurrak kalifikazioa mantentzea.

**ERANTZUNA.**" Agarreko jarduera ekonomikoen erreserba sartu da Zamudioko Parke Teknologikoak -lurzoruaren zati baten jabeak- eskatu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzak aldeko txostena egin duelako eta Balio Estrategiko Handiko Nekazal lurzoruekiko afektazioari dagokionez BFAko Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiak ere aldeko txostena eman duelako."

"Lursail horiek sailkatzeari dagokionez izan daitezkeen eragozpenak Zamudioko HAPO-a eta dagokion Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa ikuskatzearen esparruan alega daitezke."

**KOMENTARIOA.** Eusko Jaurlaritzaren eta Diputazioaren Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiaren baimenarekin eta PNV Zamudioko alkatetzan egonda, ondorioa argi dago. Horrekin batera, galdera bat. Zenbat terreno gehiago dago Zamudion jadanik jarduera ekonomikoetarako kalifikatuta? 50ha 80 futbol zelaien besteko superfiziea da -100m x 60m-, gutxi gora behera. Ez da gutxi, ez!. Ez dakigu zein oreka mantentzeko omen den. Futbolarekin jarraituz. Partiduaren emaitza: Lurzoru industriala taldeak 50 / Nekazal lurrak taldeak -50. Zelako jipoia! Argi dagoena da, kalifikatzeko garaian, aurrez antropizatutako eta eraldatutako lurren erabilerari lehentasuna eman beharrean, kalitate handiko nekazal lurrak aukeratu dituztela, eta ez dutela errespetatu EAEko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroen 18.artikulua, eraldatutako lurzoru eta azpiegiturak berrerabiltzea lehenesten duena.

**2- ALEGAZIOA.** Lezamako La Cruz eta Ugarte eremuak Balio Estrategiko Handiko Nekazal Lurrak bezala kalifikatzea eta industria lurzoru gehiagorik ez kalifikatzea.

**ERANTZUNA.** …"Lezamako Udalak jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarri gisa La Cruz eta Ugarte eremuen birsailkapena planteatzeko aukera izango du" … "Lezamako HAPO berria eta Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa idazten eta izapidetzen ari diren bitartean lurzoru horiekiko afektazioak modu egokiagoan aztertu izango dira."

**KOMENTARIOA.** Aurrekoan bezala onartu egiten lurzoruaren artifizializazioa eta azken pausua HAPO-aren tramitazioaren baitan geratzen da, hau da, Udal Gobernuaren eskuetan.

**3- ALEGAZIOA.** Asua ibaian ere ibai-parkea egitea, ibaiaren balioak sustatzeko, jasaten ari den degradazioa geldiarazteko, ibilguaren ondoan eraikuntza berriak debekatzeko, ibai-ertzeko landaretza berreskuratzeko…

**ERANTZUNA.** "Asua ibaiari dagokionez, LPP-an lotura-korridore bat sortzea erabaki da, ibai-parke baten ordez". "Lotura korridoreak korridore ekologiko nagusiak eta hiri-azpiegitura berdea lotzen dituzten garrantzi txikiagoko korridoreak dira, ibai-ibilguei lotutako adar gisa"

**KOMENTARIOA.** Beraz, garrantzi txikiagoko lotura-korridore bat tokatu zaigu. Zer izango ote da benetan? Mantxa berde bat planoan Asuaren ibaiaren ertzetan?

**4- ALEGAZIOA.** Etxebizitza babestua eraikitzea beharraren eta eskaeraren arabera. Eraikitzeko orduan kontuan hartzea gazteak, ezgaituak, nagusiak, familia gurasobakarrak…zaintza komunitarioa egitea errazten duten eraikinak…

**ERANTZUNA.** "Hala ere, LPP-an zehaztapenen bat sartzeko aukera aztertuko da, hirigintza-plangintzek aurreikusitako beharrizanetara egokitzen den eskaintza bat egiteari buruzko gogoeta espezifikoa egiteko beharrari dagokionez"

**KOMENTARIOA.** Gai batzuk derrigorrezkoak dira, adibidez, jarduera-ekonomikorako lursailak nekazal-lurren kontura, edo baimenduko den etxebizitza kopurua. Berriz, tipologia konkretu batzuk eskatzen direnean aukera aztertuko dutela erantzuten dute eta hirigintza-plangintzetan gogoeta bat egitea gomendatuko dutela. Poligono industrialak egiteko gogoeta eta gomendio gutxi. Zementuaren legea baino ez.

**5- ALEGAZIOA.** Bidegorriak. Eskatzen da behingoz ganorazko sare bat egitea, planoetatik errealitatera pasatzea, eta Zamudioko zatian errepideko zati arriskutsu hori aldatzea.

**ERANTZUNA.** "Bizikleta-mugikortasunari dagokionez LPP-ak lurralde-izaerako sare jarraitu bat jasotzen du…toki-sareen arteko konexioa ahalbidetzen duena. Sare hori eskema mailan definitzen da, eta dokumentazio grafikoan trazadura-proposamen zehatzik eskatzen ez duen irudikapen batekin. (LPP-ko 79.1 artikulua)"

**KOMENTARIOA.** Hori ere gogoeta mailan geratu da, trazadura zehatzik gabe, eperik gabe…

**6- ALEGAZIOA.** Asua ibaiaren inguruko hobekuntzak eta aurreko Uholdeen Prebentziorako Plan Integralean (UPPI-PIPI) zegoen kartografia berreskuratzea.

**ERANTZUNA.** "Azkenik, adierazi behar da Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren 2022-2027 Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (UAKP) eta ziklo bererako Plan Hidrologikoa azken izapidetze-faseetan daudela, eta planaren horizontean egiturazko jarduketak aurreikusten direla".

**KOMENTARIOA.** 2022a pasatu da, Plana tramitazioaren azken faseetan dago eta ez dakigu indarrean egongo den Planak zer zehaztuko duen Asua ibaiaren inguruan.

# Basogintza. MEHATXU NAGUSIAk

**"Baso-lurren kasuan, higadura ere ingurumen-arazo larrienetakotzat jotzen da,** baso-zoruen emankortasuna galtzea, landare-estalkiaren degradazioa bizkortzea eta uren erregulazio naturala murriztea eragiten duelako. EAEkoa bezalako testuinguru batean –malda handien, lurzoruaren testura astunen edo klima euritsuaren faktoreek oso baldintzatuta–, **kontu handiz ibili behar da basogintzako jardunbide desegokirik ez egiteko, eta baso-ustiapeneko metodoen hobekuntza-egoeran egon behar da lurzoruen higaduratik eratorritako arriskuak minimizatzeko."**

Testu hori ere Eusko Jaurlaritzaren "Lurzorua babesteko 2030erako Estrategia" liburutik aterata dago. Hor aipatzen da baso-ustiapeneko metodoen hobekuntza bilatu behar dela lurzoruetan egiten diren kalteak minimizatzeko, eta Guardetxe inguruko udaleko pinudietan erabiltzen ari diren metodoak betiko metodo suntsitzaileak dira: makineria astuna aurrera eta atzera, etengabe, pinuak arrastaka pistaraino eramaten, lurzorua altxatzen, narritzen, lurra biluzik geratu arte. Ez da geratzen ez zuhaitz hosto-zabalik, ez beste inolako begetazio estaldurik. Lurra biluzik, inolako babesik gabe.

Bai, argi dago, kasu honetan ere mehatxua gauzatzen ari da, Lezamako Udalaren eta Diputazioaren basogintza-departamentuaren oniritziarekin. Basoa soiltzen ari dira zentzu guztietan. Bai, bai, ondo soilduta geratuko da.

**"Baso-lurren kasuan, higadura ere ingurumen-arazo larrienetakotzat jotzen da...** Lasai ez da bukle bat. Eskerrak ingurumen arazo larri bat den.

LEZAMA BIZIRIK auzo elkartea

WWW.LEZAMABIZIRIK.COM

Ayuntamiento de Lezama ko Udala